

Bat-bateko Itzulpengintza: gakoak eta azterbideak

XABIER PAYÁ

Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza,
horra hor zer kirol mota
den bertsolaritza.

Hablar cantos rimados
que midan lo mismo,
de eso trata el deporte
del versolarismo.

X. Amuriza

Sarrera

Hizkuntza arteko bitartekaritza literarioan dena da zilegi, baldin eta bitartekariak egiten dituen manipulazio eta esku-hartze aktibo guztiak baliagarriak badira itzulpenaren hartzailea jatorrizkoak dienez behar bezala jabetu dadin [...]; bestela esanda, hartzaileak ulertu behar duena behar den moduan ulertu dezan.

Teoría General de la Mediación Interlingüe, Sergio Viaggio.

Bertsolaritzaren itzulpengintzak edo/eta interpretazioak SENEZEN lekuri behar luketen ere ez daukat argi. Izan ere, ezinezko kontuez mintzatzea eguneroko ogia baita, baina idatzian eguneroko ogi guztiak eserialdi bakarrean irensten ditugu. Nolabait esateko, bertso-itzulpengintzak gehiegi teorizatu ezin den gaia dirudi, praktikan gertatu arren, intuiziotik asko eta jui-ziotik gutxi duena. Bertsoak itzul daitezke? Itzuli ala interpretatu? Aldi bereko interpretazioa egin dakieke bertsolariei? Bidezkoa da bertsoak itzultzea? Euskal gizarte gero eta eleanitzagoan, euskaldunen dimentsioan baino ez du lekuri bertsoak?

Galdera gehiegi dira oinarririk gabeko testu batentzat. Hortaz, lehenbizi komeniko litza-teke “itzulpena” bertsolaritzaren arloan zer izan daitekeen definitzea. Neurtitzen kasu hone-tan, itzultzea eta interpretatzea elkarren sasi-sinonimo dira, gerora ikusiko dugunez, ez ba-tak, ez besteak ez dutelako bertsoen prozesu interlinguistikoa identifikatzen erabat. Bertso bat hizkuntza batetik bestera irauli nahi dugunean, hiru itzulpen mota izaten dira erabil daitezkeenak:

1) **Parafrasia:** jatorrizkoaren bertzio librea, formaren zorroztasunak bultzatutako gehiketa eta kenketak dituena. Irizpide nagusia forma da, edukia ahalik eta gutxien sakrifikatuta. Parafraasiak hizkera idiomatiko jasoa eta dotorea izan dezake, baina itzultzailearen gaitasun apaingarriak ez du jatorrizkoaren mamia lausotu behar.

Bertsoak izan ahal du
itzulpen askea
zaila baita denari
erabat eustea.
Zaila baino gehiago,
ze buruhaustea!
Nahi baduzu bertsoak
zu gozaraztea
hobe duzu euskara
ikasten hastea.

Un bertso puede ser de
traducción somera
pues es cosa difícil
de otra manera.
¡Digo difícil, como
si posible fuera!
Si quieres sentir lo que
el bertso genera
será mejor que empieces
a aprender euskera.

2) **Lexikoa:** hitz eta hitz-kateen oinarrizko esanahia. Makina batek pertsona elebidun baten gidaritzapean egin dezakeena.

Plazak bete nahi dira
bertsolari berriz:
daudenak onak dira,
datozenak, berriz,
Berria bete gura
dute euren berriz,
baina sartu ohi dute
hanka behin ta berriz.

Las plazas quieren llenarse
de nuevos bertsolaris
los que están son buenos
los que vienen, sin embargo,
quieren llenar el Berria
con noticias sobre ellos
pero suelen meter
la pata una y otra vez.

3) **Literala:** hizkuntzak paradigmatikoki eta sintagmatikoki ahalbidetzen duen zorroztasun handienarekin jatorrizkoaren esanahi kontestuala eskaintzen duen itzulpena.

Hori da itzulpen benetakoena.

Orduan, posible ote da bertsoak benetan itzultzea? Erantzuna argia da: ez, ezin da.

Bertsoen itzulezintasuna abiapuntutzat hartuz, artikulua honetan bertsoak itzultzen egindako ibilbidearen balorazioa egin nahi nuke, gero eta sarriago gertatzen den itzulpen-jarduera honetan trebatu nahi dutenen intuizioa nirearen jarraipen izan dadin, edota bertsoen itzulpenak hizkuntza-aukera zabalagoa izan dezan. Hala ere, argi utzi nahi nuke beste interprete askok zeresan handia daukatela gai honen inguruan.



Traduttori di versi, traditori più perversi

Lehenago esan dugu bertsoak ezin direla benetan itzuli. Orain esan beharko dugu zergatik ezin pasa daitekeen Txirritaren puntu erantzun bat gaztelaniara eta zergatik itzultzaileak hemen ere traidore izan behar duen. Italiaraz ez dakigunok ere “traduttore, traditore” hitz parearen esanahia badakigu. Bertsoak itzultzen dituenak, ordea, traidore handiagoa izan behar du. Noski, traizioa ez da boluntarioa kasu honetan, ez baita beste biderik.

Jakin badakigu erabateko ziurtasunez bat-bateko bertsoak ezin itzul litezkeela. Akaso interpretatu, bertsio on bat egin, baina ez dago bertso baten edukia, forma, zentzu denotatiboa eta konnotatiboa eta karga semantikoa jatorrizkoan bezala beste hizkuntza batean ematerik. Zer esanik ez sorkuntzak hizkuntza bera oinarri izaten duenean. Bertsoak bat-batean errimatuta edo/eta neurtuta itzultzeko saiakeretan ere, formari fidela izan nahian edukia traizionatzen da. Bestalde, edukiaren mamia ahalik eta zehatzen irauli nahi denean ontzi batetik bestera, bertsoaren izaera artistikoa ezabatu egiten da, izaera artistiko ezberdin batean murgiltzeko. Nolanahi esateko, itzulpen lexikoak jatorrizkoaren izaera poetikoa, erretorikoa edo artistikoa deuseztatu egiten ditu, eta hala egin behar du gainera, jatorrizkoaren asmo komunikatiboa eredu artistiko berri batean moldatu behar badu.

Arestian esan bezala, itzultzaileak bertsolaria traizionatu behar du; alabaina, arrazoi ugari dago bertso bakoitza txanpon gutxi batzuen truke saltzeko.

a) Hizkuntzaren mugak

Hizkuntza bakoitzak ezaugarri eta estrategia ezberdinak erabiltzen ditu denentzat berbera den errealitatea deskribatzeko. Horren ondorioz, betaurreko gorriak dituen hizkuntzari ezin esan dakiok hango gauza gorri hori ekartzeko, nahiz eta trastea begien parean izan. Egoera horretan aski izango litzateke atzamarrarekin aipagai den elementua identifikatzea, baina bertsolariak geldu egon ohi dira. Anbiguotasuna presente izaten da bertso asko eta askotan, bertsolariak ez duelako zalantza argitu nahi edo zalantzaz ez delako ohartu ere egin edo zalantza hizkuntza batetik besterako jauzian sortzen delako.

a. Euskaratik

Bertsoak itzultzen jardun dudanetan, euskarak dauzkan berezko forma eta ezaugarri guztien artean, buruko min handienak hizkuntzaren berezitasunak izaten dira:

Gorostidirenean
 izan naiz goizean,
 nire izena han zuen
 zerrenda luzean,
 zehazki beste hamar
 izenen atzean
 ta bat baino ez zen sartzen

aldi bakoitzean...
berdina izango al da
zerura sartzean?

Ohiko interprete-jardunean agertzen diren trabak izan arren, atal honetako hitz eta hitz-ka-teek zailtasun gehigarriak dituzte bertso-itzulpenean. Esaterako, goiko bertso lehenengo le-rron ageri den *Gorostidirenean* horrek itzulpen erraz samarra du (*en donde Gorostidi*), baina interpretazio zaila (*¿en donde vive, trabaja, atiende, despacha o... qué?*). Noski, itzultzaileak ez baitu zertan jakin Anjel Maria Gorostidi Athletic Futbol Taldeko medikua izan zenik garai ba-tean. Bertsoa Bilboko taldeko jokalaria baten ahotan jarriz gero, esanak zentzua izango luke.

Batek baino gehiagok pentsatuko du arazo hori interpretazio arruntean ere izaten dela, bai-na zailtasun erantsiak bi dira gutxienez bertsoen kasuan: batetik, interpreteak ezin du *Gorosti-di* itzuli gabe utzi edo bestela interpretatu (*el médico*), ez baitakigu bertsolariak zer aipatu-ko duen hurrengo bertsoan (eta izen soil bat bertso oso baten estrategia komunikatiboaren oina-rria izan daiteke); bestetik, denbora azkarrago pasatzen da bertsoen itzulpenean, eta forma eta edukia zehaztasun ezetik abiatuta eta presaka itzuli beharrak esan osteko interpretazioa lehe-nesten du bitartekaritza metodo gisa. Izan ere, bertsoen aldibereko interpretazioan agertzen den zailtasun nagusia antizipazioa ohi baino arriskutsuagoa izatea da eta horregatik esan oste-koa da alternatiba bakarra.

Bestalde, badira kasu aipagarri batzuk:

- *kulturgintza*, *euskalgintza* edo *ipuin kontalaritza* gisako kontzeptuak perifrasiari itzuli beharrak neurriaren mugak apurtzen ditu.
- *jardun*, *zertu*, *ibili* eta *ari* moduko aditzak testuinguruaren bitartez baino ez ohi dira ulertu. Gehienetan aditzok zehaztu egiten ditugu itzulpena egiterakoan, baina bertsolariaren estrategia komunikatiboa anbiguotasuna sortzea izan baldin bada, bertsoak zehaztu ez duena zehazteke utzi behar du interpreteak.
- hitanoa.
- euskalkiak.

b. Gaztelaniara

Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakotan
egoskor bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu berdintsu.

...
pero tú estabas tan
comprometid@ con tu sueño
y en esas ocasiones
te pones muy terc@
...

gabon neba maitea,
egunon anaia!

¡Buenas noches hermano (de hermana),
buenos días hermano (de hermano)!

Neba, arreba, txotx! eta euskal labela duten beste hitz batzuek interpreteen bekainak altxatzen dituzte bertsoan zein ez. Zer egin halakoetan? Neurriak ez baldin badu mugarik, onena beharrezkoak diren azalpen guztiak ematea da.

b. Erreferentzia soziokulturalak

Gisatua izan da
gozo ta beroa
baina zalantzatxo bat
argitzera noa:
mahai gainean dagoen
botila mordoa
ez ote da izango
(galdera hor doa)
iazko Nafarroa
Oinez-eko ardoa?

...
¡El montón de botellas
que hay sobre la mesa
no será
(ahí va la pregunta)
vino del Nafarroa Oinez
del año pasado?

John Miles Foley ikerlari estatubatuarra Euskal Herrira etorri zen azken aurreko aldian, 2004an, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Barañainera gonbidatu zuen Maialen Lujanbio eta Sustrai Colinaren bertso-afari batera. Libreko saioaren une batean, Sustrai goiko bertsoaren antzeko zerbait kantatu zuen². Edozein euskal herritarrentzat aski ulergarria izango litzateke bertsoaren muina. Missouri Columbiako Unibertsitateko irakasle batentzat, aldiz, mami berberak hurrengo bi bertsoak galtzeko ulergaitzasuna baino ez dakar. 2003ko Nafarroa Oinez eguna Irunberrin izan zen, euriak jaialdia hondatu zuen urte hartan. Horren ondorioz, jende askok huts egin zuen Nafarroako Ikastolen edo itundutako heziketa zentro pribatu euskaltzaileen festara eta egun hartan edateko ziren botila asko eta asko edan gabe gelditu ziren, eta Sustrairen ustetan, botila haiek Barañainen hustuko ziren.

Zer egin halakoetan? Gehiegi izan gabe, komeni da kanpotarrari azalpen guztiak ematea, posible izanez gero bertsoen haria galdu gabe.

c. Baliabide linguistikoak eta poetiko-erretorikoak

Nahiz eta ibili geran
argi eta zuzen,
erre baino lehenago
isildu gaitezten.

...
callémonos
antes de que...

Jon Maia

2. Saioa ez zen grabatu.

Hitz-jokoak, metaforak eta halako berba-jostailuak sarritan agertzen dira bertsoetan. Interprete edo itzultzaileak, irudimenak eta zorteak ahalbidetzen dioten neurrian, egitura baliokideren bat bilatu beharko luke xede hizkuntzan, eta posible izango ez balitzaio, itzulpen komunikatiboa egin dezala.

Goiko bertsoan, esaterako, Jon Maia erre gabeko zigarreta bat zen Andoni Egaña erretako zigarretaren ondoan. Kopla saio ederra egin ondoren, bertsolari zumaiarrak horrela amaitu zuen elkarrizketa. Itzulpenak zortziko txiki baten neurrira luzatu zen gutxienez.

Traidoretik sortzailera

Argi dago bertso-itzulpengintzan traizioa ezinbestekoa dela. 2005eko uztailean Kubako Las Tunas herrian izandako inprobisatzaile topaketetan bertsolaritzak Ainhoa Agirreazaldegia eta Jon Martin izan zituen enbaxadore. Hemengo eta hango adituek “itzulpen poetikoa” egiteko eskatu zidaten, esan osteko interpretazio artistikoa egiteko. Esperimentuak gaseosarekin egin behar direla eta, Kuba leku aproposa iruditu zitzaidan. Hasierako agurra aldez aurretik esateko eskatu nien bertsolariari, lehen itzulpenak erdi prestatuta izateko. Azken saioko azken agur batek honela zioen:

Bukatu da gure gala,
oroitzeko eginahala
Jaunak permiti dezala.
Inoiz hondartzan sentituz gero
itsasoaren kresala
oso maitekorra dala,
hartazue berehala
besarkada bat bezala.

Ya se acaba nuestra historia
y he de pedirle a Dios
que permita que mi voz
se grabe en su memoria.
Y si en esta isla de gloria
algún día en la playa
sienten cariño en la brisa del mar
será que desde el Golfo de Vizcaya
el País Vasco les quiere abrazar.

Formaren edertasuna erdi traizionatuta edukia ere erdi traizionatzen da. Horren ondorioz, interpreteak traidore eta sortzaile izan behar du. Goiko kasuan itzulpenak Kubako dezimaren imitazio izan nahi du, euskarazko neurriek gaztelaniaren azentu tonikoa kokatzeko zailtasunak sortzen baitituzte. Dena den, adibidean ikus daitekeenez, sasi jatorrizko edukiarengatik silaba kopurua eta egitura ere traizionatzen dira.

Ofizioen atalean, ordea, ezin egin zitekeen tranparik. Hortaz, paper zuriaren eskuineko erzetetik hogei bat zentimetrora marra zuzen bat egin nuen goitik behera eta publikoak proposatutako gaia entzun nuen³: “Bata txakurra izango da eta bestea txakurraren jabea. Jabeak ez dio jaten ematen txakurrari.”

3. Atzerriko emanaldietan aukera ematen zaio publikoari gairen bat edo beste jartzeko, bertsolaritzaren bat-batekoa dela frogatzeko.

Baraualdi asteak
pasatu dira bi,
zuk izan behar zenuke
neronen zaindari.
Ez badidazu ematen
janari ugari
haginka egingo diot
zure eskuari

Dos semanas en ayunas
sin un hueso que roer.
Tú deberías cuidarme,
deberías ser mi amo.
Pero si no me das
mucho carne que comer
no me quedará más remedio
que morder tu mano.

Ainhoa Agirreazaldegi

Itzulpenak ez du neurririk errespetatzen eta gutxieneko errimaren egitura ABAB tipokoa da, bertsoaren puntuaren arabera antolatuta. Kontuan hartu behar da esan osteko interpretazio errimatu bertsoa amaitu eta berehala entzun zuela publikoak. Horrek edukiaren traizioa eskuzabalagoa egiten du. Bertso-aldiak etengabe aipatu zituen jabearen eskua eta txakurraren gosea.

Esan osteko interpretazio poetikoa egiteko lan-metodologia nahiko sinplea erabili nuen. Eskuin aldeko marraren ezkerrean bertsoan esandakoak idazten nituen notazio-teknikak erabiliz eta aldi berean hitzen kategoriei erreparatzen nien:

- Aditzek gaztelaniaz *-ar*, *-er* ala *-ir* bukaerak baino ezin dituzte izan (infinitibaon eta konjugazioak era askotan antzekoak dira). Horrek errimak bilatzeko sistema errazten du.
- Aditzondo guztiek normalean *-mente* bukaera izan dezakeen sinonimorik izaten dute. Ez da errima aberatsegia, baina errima da.
- Izenondoekin ere atzizki batzuk izan behar dira kontuan: *-ble*, *-it@*, *-isimo*, etc.

Gainerako kategorietan ez dago aparteko trikimailurik. Agian horregatik ahalegintzen naiz izenei izenondo substantziarik gabeak jartzen, edota izen soilaren karga semantikoa izena + izenondoa batuketan adierazten. Halere, itzultzaileak jakin behar du aukeraz baliatzen *mano* eta *amo* gisakoak agertzen zaizkionean. Edozein kasutan, epe laburrera egindako itzulpen poetikoa zein esan osteko interpretazio artistikoan, itzultzaile eta interpreteak gaztelaniazko errimategia lantzea oso gomendagarria da.

Traidoretik zorigilera

Bertsoak itzultzeko forma irizpidetzat eta edukia abiapuntutzat hartzen dituen traidoreak sortzaile izan behar badu, edukia irizpidetzat eta abiapuntutzat hartu eta forma galdu egiten dituen jatorrizkoarekin zorretan gelditzen da. Hala ere, formaren galerak ez dirudi hain larria bertsoa komunikazio eta komunikazioa eduki dela uste dutenentzat. Halakoetan aldibereko interpretazioa posible izaten da.

Anaia-arrebok ez otoi pentsa
 hemen gustura nagonik
 poz gehiago izango nuen
 albotik beha egonik.
 Zuek ez bazerate kontentu
 errua ez daukat ez nik,
 txistuak jo dituzute baina
 maite zaituztet oraindik.

Hermanos y hermanas, no penséis
 que estoy a gusto aquí,
 preferiría estar
 mirando desde un lado.
 Si vosotros no estáis contentos
 la culpa no es mía,
 me habéis abucheadado pero
 todavía os quiero.

Egon litezkeen interpretazio eta termino ezberdinak alde batera utzita, itzulpen mota arazo ezberdinak ditu interpretazio motaren arabera:

- *Aldi bereko interpretazioa*: interpretazioak oso hitzez hitzekoa izan behar du. Goiko kasuan, esaterako, ezingo genuke *poz gehiago izango nuen preferiría* esanda itzuli, gerta baiditeke bertsolariak *poza* ardatz hartzea hurrengo bertsoan (goikoak, ordea, ez zuen izan erantzunik)
- *Esan osteko interpretazioa*: interpretazioa parafRASIKOAGOA izan daiteke, baina esaldien karga semantikoa mantentzea itzulpena bezain garrantzitsua izan daiteke. Kontuan hartu beharra dago euskara ulertzen ez duten entzuleek askotan ez dutela txalo jotzen bertsoa entzun ondoren, baizik eta itzulpena entzun ondoren. Horren ondorioz, bertsoak entzulearengan izango lukeen eragina ere itzuli behar da, entzuleak igarri dezan noiz hasi behar duen txaloka.

Bertsogintzaren bilakaerak itzulpenean eragindako aldaketak

Gaur egungo bertsolaritzaaren korrontearen erruz, badirudi bertsoen eragina transmititzea gero eta zailagoa dela. Garai bateko bertsolaritzak azken puntua erabiltzen zuen ideia nagusia azaltzeko. Nolabait esateko, lehengo bertsolaritzaaren azken puntuak sententzia autonomoak ziren, esaldi batean adierazten ziren ideiak. Bertsolariak azken puntuak kontzentratzen zuen kantuan hasi aurreko gogoetaren prozesu osoa.

Ari naizela, ari naizela
 hor ikusten dut Txirrita
 eta nor ez da harrituko gaur
 gizon hori ikusita.
 Dudarik gabe egina dio
 andregaiari bisita,
 oso dotore etorri zaigu
 bi alkandora jantzita.

Pello Errota

Hauxe da lotsa eman didana
 gizon artera sartuta
 edozein gauza esaten degu
 ardo tantokin puztuta.
 Bi alkandora ekarri ditut
 bat eranstea ahaztuta;
 Pellok bi nola jantziko ditu
 bat besterikan ez du ta!

Txirrita

Pello Errotaren eta Txirritaren arteko bertso-gudu honetan ikus daitekeenez, hirugarren puntuak laugarrenekoaren kolpea bideratzeko balio du eta laugarrenak bertsoaren eduki nagusia azaltzen du. Gaur egungo bertsoetan, berriz, azken puntuak askotan ez dute zentzurik bertsoetik kanpo. Esan daiteke egungo bertsoaritzan lehengo azken puntuak distira bertso osoan zehar zabaltzen den aldamia dela. Horren adibide⁴:

Urgentzitako gela txiki hau
nola izan inoren poza?
Giro atsegina topatzeko ere
ez da toki aproposa.
Nire ondokoak sufritu ei du
akzidente baten bortxa
eta barrengo minetan dago
bestaldeko hanka motza.
Pareko amonak barruan dauka
bere beldurraren hotsa
ta hango neskak dantzan dabilki
izu batean kokotza...
Gela berde hontan juntatzen dira
bizitza ta heriotza.

Maialen Lujanbio. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2003

Azken puntuaren indarra aurreko puntu guztien praktikan oinarritutako teorizazioa da. Independenteki aski indartsua da, baina bertso osoaren testuinguruarekin askoz indartsuagoa da; are gehiago, esango nuke koadroaren edertasuna lehen sei puntuetan dagoela. Hortaz, itzulpenak arreta handiz zaindu beharko du bertso osoa, aldamiaok ez baitu beti izango azken puntu sendorik.

Bertsogintza: ariketen arabera interpretazio mota

Bertso-saio batean ariketa paradigmaticoak eta sintagmaticoak egon daitezke eta ariketa motaren arabera interpretazio mota ezberdinak erabil daitezke:

- Paradigmaticoek gaia ezartzen dute bertsoan egiteko: bakarkako gaiak, ofizioak, etab.
- Sintagmaticoek bertsoaren ezaugarriren bat aztertzen dute: oinak, lehen puntua, azkena, etab.

4. Gaia: Ospitaleko itxarongelan zaude, sendagilea noiz helduko zain.

Ariketa paradigmaticoak ez ditugu berriz aztertuko, orain arteko azalpenak horietan kokatu baitira.

Ariketa sintagmatikoak:

Batzuetan gai-jartzaileek bertsolarien trebetasunak neurtu nahi izaten dituzte eta horretarako ondoko ariketak erabiltzen dituzte:

Oinak emanda

Bertsolarien asoziazio gaitasuna neurtzeko balio du lau oin emanda bertsoa osatzeko ariketak. Interpretazioak ez du zailtasunik aldiberekoa izateko, baina gaztelaniaz oinek errimatuko ez dutela pentsa daitekeenez, itzultzaileak euskarazko oinak errepikatu beharko lituzke, bakoi-tzari dagokion baliokidea emanez.

Hasierako puntua emanda eta azkena emanda

Helburu ezberdinak dituzten arren, puntuak ematen dituzten ariketek ez dute zailtasun berezirik sortzen itzulpenerako, ez bada argi utzi beharra dagoela zer esaten duen gai-jartzaileak eta zer bertsolariak. Hori argi uzteko beharrezkoa balitz aparteko azalpenak ematea, zilegi bedi.

Puntuka

Bertsolariek puntu bana kantatzen dute bertsoa osatu arte. Ariketak dauzkan zailtasun guztien artean, bi dira nabarmenenak:

- **Azkartasuna:** bertsolariek oso azkar jarduten dute puntuka eta oso erraza da haria galtzea. Bestalde, bertsoen artean ez da izaten esan osteko interpretaziorik egiteko denborarik. Hortaz, aldi bereko interpretazio laburrak edo saio osteko interpretazio-laburpenak baino ez posible.
- **Betelana:** gerta daiteke bertsolariak eduki substantzialik ez duen hamahiru silabako punturik botatzea. Nola interpretatzen da ezer esaten ez duen esaldi bat? Mamirik gabeko bertsoen arriskuak esan osteko interpretazio-laburpenak egitera garamatza.

Terminologia teknikoa

EUSKARA	GAZTELANIA	FRANTSESA
Bertso-saioa	Actuación de bertsolaris	Représentation de bertsolaris
Hasierako agurra	Bertso de salutación	Bertso de bienvenue
Bukaerako agurra	Bertso de despedida	Bertso d’adieux
Bakarkako gaia	Intervención temática en solitario	Intervention thématique en solitaire
Bertsogintza	Bertsolarística	Création bertsolaristique
Bertso-afaria	Actuación de sobremesa	Dîner avec représentation de bertsolaris
Bertsopaperak	Hojas volantes de bertsos	Bertsos écrits sur des feuilles volantes de papier
Betelana	Relleno	Travail de remplissage
Bukaera emanda	Final forzado	Final forcé
Doinua	Tonada	Air
Gai-jartzailea	Conductor / Guionista	Meneur de jeu
Hamarreko handia	Hamarreko mayor	Hamarreko majeur
Hamarreko txikia	Hamarreko menor	Hamarreko mineur
Kartzelako lana	Cárcel-intervención	Travail post-carcéral
Oina	Pie	Pied
Poto	Poto	Poto
Puntua	Punto	Point
Puntua emanda	Arranque forzado	Démarrage forcé
Puntukako saioa	Intervención a punto corrido	Intervention à point suivi
Zortziko handia	Zortziko mayor	Zortziko majeur
Zortziko txikia	Zortziko menor	Zortziko mineur

Joxerra Garziak, Jon Sarasuak eta Andoni Egañak *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak* liburuan proposatutako terminologia izan da bertsoen interpretaziorako erabili dena. Goiko zerrendako terminoen artean bi motatako arazoak ageri dira:

- Maileguak: entzuleentzako ulertezinak, erdal dimentsioetan baliokiderik gabeak diren terminoak errezeloz zabaltzen dira publiko berriaren artean (*poto*, *zortziko handia*, etab.). Denborak digeritu beharko ditu.
- Erdal termino teknikoak: erdarek ere badituzte inprobisazioak eta inprobisatzaileak. Gaztelaniaren kasuan, errealitate horien terminoak egokitzen jo dira erdal dimentsio

guztietarako baliokide izateko (*arranque forzado*, adibidez). Horrek ere badu digestio beharra.

2005eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

2005eko abenduaren 18an Barakaldoko Bilbao Exhibition Center erakustazokaren Bizkaia arenan bertso-saio batean inoiz izan den interprete kopuru handiena izan zen. Zortzi bertsolarik goizez eta arratsaldez egindako konferentzia kantatuak aldibereko interpretazio-zerbitzua izan zuen gaztelaniara eta ingelesera eta ETB2rako programa berezi baterako *bat-bateko itzulpengintza-zerbitzua*.

Aldi bereko interpretazioa

Lourdes Auzmendik eta Bego Montoriok euskaratik gaztelaniarako kabinan eta Vidal anaiek ingeleserakoan zortzi orduko lan ederra egin zuten. Euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik ingelesera Shakespeare-ren hizkuntzara Euren zereginaren zailtasun motak orain arteko lerroetan ageri dira.

Bat-bateko itzulpengintza

ETB2rako programaren azpituluez arduratzea ez zen batere lan erraza. Arratsaldeko saioaren lau orduetatik ordu eta erdiko programa duina atera behar zen. Zerbait berria zen, sekula egin gabea:

- Itzulpenak txapeldunaren azken agurra kantatu eta ordu betera prest egon behar zuen. Saioaren emisioa gaueko hamaiketan zen eta arratsaldeko saioaren aparra bederlatziak aldera baretu zen.
- Grabazioak emititu aurreko moldaketak behar zituen; azpitoluak, besteak beste, orduan erantsi behar ziren.
- Jon Sarasuak eta Julio Ibarrak saioa komentatu behar zuten erdaraz. Eurek egindako itzulpenak azpitoluekin erkatu beharra zegoen.
- Gai-jartzaile taldeak, saioa hasi baino ordu eta erdi lehenago, gaiak eman zizkigun gaztelaniara itzulita.

Azken unera arte ez genuen jakin nola antolatuko genuen “itzulpen-bulegoa”. Hasiera batean Joseba Urkiak eta biok bertsoak interpretatu eta inork azpitolutara pasatuko zituen. Arriskutsua zirudien, baina finala amaitu eta berehala emititzen hasteko bide bakarra hori zen. Mesede zein kalte, azkenean saioa ordu pare bat beranduago emitituko zela erabaki zen.

Orduan, azpigituluak idazteko honako lantaldea osatu genuen: Juanjo Pagola eta Joseba Urkia interpreteak, Amaia Agirre bertsolari eta bertso-transkribatzailea (*Hitzetik Hortzera* saioan lan egiten du), gaztelaniazko mekanografo bat eta ni neu neroni testu definitiboa zuzentzeko.

Pagolak eta Urkiak, kabinan sartuta, bertsoak entzun eta hitzez interpretatzen zituzten. Hitzok mekanografoak idazten zituen eta niri pasatzen zizkidan, Amaia Agirrek transkribatutako jatorrizko bertsoekin batera. Orduan, biak erkatzea zen kontua, hori baino ez.

Goizeko saioaren bukaeran proba-saio bat egin genuen eta emaitza ez zen hain ona izan. Esperientzia falta sumatzen zen taldean. Ekipo izango ginen horretan oso ondo egiten genuen bakoitzak gure lana, baina katea ez zen egokia. Interpreteen esanak luzeegiak ziren askotan eta mekanografoak paragrafoka idazten zituen bertsoak, puntuak eta komak edonon jarritz. Ondorioz, bi hiru lerroko letra multzo haiek Amaia Agirrek emandako bertsoekin alderatzea ez zen bakarrik azken zuzenketa egitea:

- Gaztelaniazko paragrafoak bertsoaren egiturara itzuli.
- Egitura kontzeptual erdalduna euskarazkoarekin erkatu.
- Lerro bakoitzean berrogei kolpekada baino gehiago ez zegoela baieztatu.
- Bertsoaren mamia egokitu.
- Testua zuzendu.
- Gaztelaniazko bertsoa bi lerroka banatu azpigituluetarako.
- Horren ondorioz, elkarrekin hitz egin eta traba horiek gainditzeko bidean jarri ginen.
- Epaimahaiak bertsoaren balio komunikatiboa eta balio estetikoak neurtzen ditu, labur esanda. ETB2ko programan azaldutako azpigituluek bertsoaren balio komunikatiboa islatzen zuten, baina jatorrizko bertsoen balio estetikoak ez zen inon ageri. Jon Sarasuak “hurbileko itzulpen” gisa definitu zituen azpigituluak. Izan ere, bertsoaren indarra euskarak ematen dion formulazio linguistikoa ageri da, errima, hitz-joko eta abarren balio estetikoak balio komunikatiboaren baturan.

Halere, gu benetako itzulpena egiten saiatu ginen.

Unai Iturriaga, eres profesor/a en un curso nocturno para adultos. Tienes frente a ti a una docena de personas. Están cansadas, pero tienen ganas de aprender.

Berriro ere klasean
bueno, zer moduz gabilta?
Kaixo Omar, aspaldiko!
Etorri zara, Aritza!
Klasea nahiz eta dugun
igual kutrea ta hitsa,
zuen begietan dago
ikasi nahiaren printza

Una vez más en clase,
bueno, ¿Qué tal andamos?
Hola, Omar, ¡Cuánto tiempo!
Tú también has venido, Aritza.
Tal vez el aula sea
bastante cutre y triste, pero
vuestros ojos reflejan
ganas de aprender.

Zein etxeko lan gogorrak,
fabrikakoa bortitza...
Lana bukatu ta gero
hona praktika ta mintza!
Euskeraz egin nahi hori
zuen geroko bizitza,
hori ez da subjuntibo bat,
hori da lehen baldintza.

Qué tareas tan duras
en casa, en la fábrica...!
Y al salir del trabajo
venís aquí a practicar.
Ese deseo de construirlos
un futuro en euskera,
eso no es subjuntivo,
eso es una condición imperativa.

Unai Iturriagak azken faseko kartzelako leanean botatako lehenengo bertsoak zailtasunak nahi adina zeuzkan. Nabarmenenak bi:

- **Elipsia:** Habaneraren azken lau puntuetan bi aditz jokatu baino ez daude, eta biak azken puntuan biltzen dira. Gaztelaniaz zail samarra izanik hainbeste gauza esatea aditzik gabe (modu naturalean), ezinbestekoa izan da behintzat bat gehiago sartzea (venís). Elipsia oso normala da bertsoan eta interpreteak jakin behar du ezkutuko aditz horiek azalerazten.
- **Azken puntua:** *Euskeraz egin nahi hori zuen geroko bizitza, hori ez da subjuntibo bat, hori da lehen baldintza.* Esaldi hori bertsoaren mezu nagusia da. Ondoriozta genezake, beraz, bertsoa egitura tradizionalakoa dela. Hitz gakoak *lehen baldintza* dira kasu horretan. Nola mantendu aditzak identifikatzeko eskolako ariketaren eta euskaldun izateko ezinbesteko pausoaren hitz-jokoa? Horra gure neuronen uzta.

Gaia gaztelaniaz jarri izana ez da adar jotzea, sortutako arazoak komentatzeko aitzakia baizik. Lehenago azaldu bezala, gaiak saioa hasi baino pixka bat lehenago jaso genituen, gaztelanari itzulita. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaren seriotasunak ez zion lehenago emateko baimenik eman gai-jartzaile talde arduratsuari. Maialenek txapeldun izateko berdintasun eskubidea zuen unetik gai guztiak a bildua edo “barra eta a” formulak erabili behar zizuten. Gainera, gizon bertsolari batek irakasle izan behar duenean, gaiak aukera emanez gero, posible du gizona zein emakumea izatea, euskarak ez baitu generoa definitzen.

Gaien beste zailtasun bat aspektua da.

Jon Maia e Igor Elortza: seréis trabajadores de la construcción. Hace pocos minutos uno de vuestros compañeros se ha precipitado al vacío y ha muerto. La ambulancia que vino a recogerlo ha apagado sus luces.

Anbulantziaren aspektutik harago, deigarriena hasierako aditza da. Nola itzuli beharko litzateke, sois ala seréis? Biak zilegiak izan arren, orainaldikoa hurbilago dago jatorrizkotik eta etorkizunekoak fikzio edo irrealtasunaren tokea ematen dio, ikus-entzuleek hobeto uler dezaten begien aurrean gertatuko dena. Hala ere, normalean orainaldia erabiltzen da.

Beti gaude estu-estu,
altura eta arrisku,

Siempre tan apurados,
tanta altura, tanto riesgo

ta berriz ere langilearen
aurpegira txistu.
Egin nahi det zenbait juzku,
ia ezin det sinistu:
anbulantzia itzaldtu da ta
bera ez da piztu.

Jon Maia

y una vez más se escape
a la cara del trabajador.
Quiero juzgar algo
de lo que no doy crédito:
la ambulancia se ha apagado
y a él no se le ha encendido la vida.

Ta piztu ote liteke?
Badaukat duda dexente.
Begira daude lau segundutan
Ehun ta piku jente.
ta gu nola egon tente,
ez dugu ordaintzen merke!
Etxebizitza hutsak egin ta
hilobiak bete.

Igor Elortza

Pues tengo serias dudas
de que pueda resucitar.
En cuatro segundos hay
más de cien personas mirando
y nosotros, ¿Cómo seguimos de pie?
Lo pagamos muy caro:
Construimos viviendas vacías
y llenamos tumbas.

Gaiak bideratutako argien ideiak Jon Maiaren bertsoa oinarritzen du. Hitzaren bi zentzuak, aldiz, aurkigaitzak dira gaztelaniazko hitz bakarrean. Denbora laburrean emandako baliokidea tranpa txikia da, *piztu* hitza bi aldiz agertzean bertsolari bakoitzaren testuan, bakoitzari esanahi bat emateko aukera baliatu delako. Bide batez, aipa dezagun bertso bietan askotan subjektuak agertu gabe uzten direla; itzulpenean, ordea, erantsi egin dira.

Pentsatu zenbat hitz-joko, metafora, zentzu-biko esaera eta berba-jolas egon zitezkeen hain plazakoa izan zen saio batean! Eta batzuetan bertsolariaren esana zuzendu ez bada egokitzekeo premia ere sortzen da.

...

Eta gauza bat bururatu zait
hau jartzea buruz behera
nor-nori-nork hau nabarmena da
zuek, ni eta euskera⁵.

Andoni Egaña

...

esta claro que en esta frase
el sujeto sois vosotros, el agente soy yo
y el objeto es el euskera.

4. Unai Iturriagari gorago jarritako gaia dagokio bertso bukaera honi

Bat-bateko itzulpena zehaztu, azpigituluen programan sartu eta azkenik pantailan azaldu zen gure lana. Hurrengora begira, komenigarria litzateke itzulpen-katearen azken atalean bi pertsona egotea: bat gaztelaniazko testua egokitzeke eta beste bat testua zuzentzeko.

Itzultzaile bertsolariaren kode deontologikoa

Bertsoak itzul daitezkeen galdetzea baino, interesgarriagoa bertsoak itzultzea merezi duen galdetzea izango litzateke. Galera nabarmena da, baina bertsolaritza urruneko lehengusu-lehengusinak ezagutzen ari den garai honetan, baserrian jaiotako ohiturari komeni zaio itzultzaileren bat hurbil izatea beti. Hala ere, bertsolaritzak jakin beharko du itzultzaile horrek egiten duen ahalegin onena izanda ere, sekula ez duela lortuko berak nahi duena nahi duen bezala esatea; horregatik, ordea, ez da geldituko lagun berriekin hitz egin gabe.

Gainera, ondoko baserrian bertan beste hizkuntza batean mintzatzen diren kanpotarrak bizi dira. Mendeetan ez diote elkarri kasurik egin eta bakoitza bere dimentsioan bizi izan da, elkarren existentziaren berri izan gabe ere. Aitzitik, bada garaia konturatzeko biak auzo, herri, eskualde, probintzia eta herrialde berean bizi direla, eta biek osatzen dutela euren ekosistema. Ez dakite zer emango dion batak besteari, baina biak aberatsago sentituko dira, seguru.

Mahomak bere mendia dakar
Euskal Herriko Mecara,
bertsotan jardun asmotan datoz
Osama zein Sam osaba.
Upel artean Pepsi, kafe, te,
mate, ron eta queimada...
Denak ezberdin emanagatik
batzuen begietara,
mila hizkuntza, mila kultura,
baina arima bera da.

Xabier Payá

Una montaña junto a Mahoma
aquí su Meca reclama,
tal vez veamos cantando juntos
al Tío Sam y a Osama.
Escanciaremos Pepsi, café, té,
y toda una amplia gama...
Aun pareciendo tan diferentes
si nos miramos con calma,
miles de lenguas y de culturas
pero una sola alma.

Xabier Payá

Bat-bateko itzulpengintza: gakoak eta azterbideak

Bertsolaritzaren itzulpengintzak edo/eta interpretazioak SENEZen lekurik behar luketen ere ez daukat argi. Izan ere, ezinezko kontuez mintzatzea eguneroko ogia baita, baina idatzian eguneroko ogi guztiak eseraldi bakarrean irensten ditugu. Nolabait esateko, bertso-itzulpengintzak gehiegi teorizatu ezin den gaia dirudi, praktikan gertatu arren, intuiziotik asko eta juiziotik gutxi duena. Bertsoak itzul daitezke? Itzuli ala interpretatu? Aldi bereko interpretazioa egin dakerie bertsolariei? Bidezkoa da bertsoak itzultzea? Euskal gizarte gero eta eleanitzagoan, euskaldunen dimentsioan baino ez du lekurik bertsoak?

Traduction simultanée : clés et voies de recherche

Je n'ai pas une idée très précise de la place que devraient occuper la traduction et/ou l'interprétation du bertsolarisme (improvisation chantée et versifiée) dans la revue SENEZ. En effet, parler de sujets impossibles est notre "pain quotidien", mais à l'écrit il nous faut avaler tous les pains quotidiens d'un seul trait. A vrai dire, la traduction de vers improvisés paraît être un sujet que l'on ne peut guère théoriser, malgré ce qui se passe en pratique, un sujet qui relève beaucoup de l'intuition et peu du jugement. Peut-on traduire les vers ? Les traduire ou les interpréter ? Peut-on procéder à une interprétation simultanée des improvisateurs ? Est-il juste de traduire les vers ? Dans une société basque de plus en plus plurilingue, le vers improvisé n'a t'il de place que dans l'espace bascophone ?

Traducción simultánea: claves y métodos de investigación

No tengo claro si la traducción y/o interpretación del bertsolarismo debería tener sitio en SENEZ. De hecho, hablar de cosas imposibles es el pan nuestro de cada día, pero, cuando escribimos, nos zampamos todos los panes de cada día en una única sentada. Por así decirlo, la traducción de *bertsos* parece un tema sobre el que no se puede teorizar demasiado y que, aunque se dé en la práctica, tiene mucho de intuición y muy poco de juicio. ¿Se pueden traducir los *bertsos*? ¿Traducir o interpretar? ¿Se puede hacer una traducción simultánea a unos *bertsolaris*? ¿Es procedente traducir *bertsos*? En una sociedad vasca cada vez más plurilingüe, ¿es la dimensión euskaldun la única en la que los *bertsos* tienen sitio?

Simultaneous interpreting: keys and research methods

I don't know if the translation and/or interpreting of *bertsolaritza* (spontaneous poetry) should have a place in SENEZ. It's true we've talked about as many impossible things as we've had hot dinners; but, when we write, we gobble up all the hot dinners in a single sitting. Put that way, it seems that translating *bertsos* (verse) is a subject on which one can't theorize much and that, although it happens in practice, a lot of intuition and very little judgement goes into it. Are *bertsos* translatable? In an increasingly polyglot Basque society, is the Basque-language medium the only one where *bertsos* have a place?









